

Artzain bizia udan Kalifornian

E.: gero mendirat, deserturat joaiten xinen?

L.: eh, deserturat bate, loma batzuetat, loma atzuetat an, ua zerratia zunan eta armada atendako, armada atzu jiten zitunan haat etsesisa atzuen iteat, ta han kusi tinau ser... Jiten zitunan, ba, urtian, alo, udan, udan han... Guk behar gintinan lekutu zoko atzuetat gure ardiekila haatik bezala, peza... zazpi egun seurik egoiten zitunan, ba zazpi zortzi egun hor, zernahi kartzen zitenan, abion aundi batzuetan, elikopterak erran nai, elikopteretan kartzen zitenan kamionak eta guziak airian, ta hor finkatzen. Iziarriko lanak iten zitenan, armadako soldadogoan bezti, zernaiko jendaldia, geo gauaz artzen zitunan oriek etxesisa, oai, tiroka ta mendi bizkar batzuetan bideak bazitunan haat dinak, gudronatiak, ederxko bidiak denak, ta han plantatzen zitunan ta zerak, dios, ze erten da, oai, tiro iteko ori, dios, ez diat errain ez, beti hantik gauaz azaltzen zitunan, bonbak eta re jauzten ziztenan, eta bazitunan, orik e inspeksioak in bear, bazitunan eta, oai, deia leendanik, leen inak, prest zienak, ua zilo atzuetan potretak, ba hek, eta elektrikatzen zitunan ba, gauaz hola agertzen hola, agertzen zitunan, ta geo gordetzen, ta hola, ta agertzen, ta heer zitenan tiroa tiratu bear, heer, heer, oai, eta trantxan balira bezala soldadoak, heer tiratu bear zitenan, hola, ta hek hantik kusten ziztenan doaike eta astiritan ta hek doaike argia baitzuten mentuaz, argia, ez baitakit zer zuten, hek, zombait aldiz eta aski tiratziain bortxaz e, su lotzen e ba, han belarra baitzen, idortia, su lotzen zunan, ara.

E.: eta xu ondoan ordian? Ardien zain?

L.: hantxe, bon arbole... Oihan zoko atzuetan olaxet, ta ardu... Atsetan ardiak denak korraleat bilduik eta uh, korrale atzu inaazten gininan, bana han hantxe zitun ardi zain egun guzia, etzanaldik ezin in, ardiak haat joanak zienak itzul, eta hortik itzul, eta besteak han baitzien, hek e gauza bera. Ez zunan gue etxia zain joaiten zuelaikan, ha sarnia! Berriz lekura joaitia, geo hor, gu frankil gintunan, gue lekua baginin, bana han oiantzar ua, geo ez dun denetan doaika, banan batun arbalakia, bana leku zikina un, haunditia, ta (...) egon bear zitenan, bana ja, leku batea elduz geoztik ez din maite beste leku bat behala, geo hara, joaiten zuelaikan hek, berriz leku berea sartzen gintunan, ta geo frankil, goxoki, ba, ba, ba, pastu dinan an, udak pasten gintinan ederrak, negian ardiekin ba batalla puxka at, bena ehe, uda ederrak, deuse, erteko moldian, ardien itzulia inez geoztik goizian, atsaldeko zazpi onak artio ez ninan lanik deus e, ardia ordian partitzen baitzen itzaletik, alo, alatzea joaiten baitzen, ordian, ta astirian aalaz hari aitzina artu, segitu ba puxka at, ta aitzina artu, ta iluntzeakoan, oi bat-edo in ta ardiak beee itzul eta marrakaz, bon are, oai, joan hire etxolaat, eta gatzak

zar, jiten baitzien hat etxol ondoat, gatza zar, ara inxtanteko tiri-tiri-tiri eldu dira, ba, bon, iluntxian ene ardiak an, are geo lo iten nin gustian, ta gero biamun goizian, an segi, argiasteko parti (...) inak, argiasteko, ta ni ez bainintzan beala askaiten al, hartu askari puxka at niaukin, ta segi, ardiak beero, ta ni, bainakin noa joain zien, ni heinka, ta aitzina hartzen nienan, ta ardiak xuen-xuena eldu alaa, ta behar ninan atxiki beste artzaiñain peza. Oai hik, hie junta baun, ez zerratia, bana han, honbeste, honbeste batian joan, ta ez dun geio hartu behar, beste partia bestiaina un, beste artzainaina, ordian han ardiak kontent baitakite junta nun den bazka, kasu, eh! Ordian han jiteaz geoz inxtantian ondora, ta geo aantzatuz beste puxiño at, kustiaekilan bestiak gielekoak eta aantzaten diela, hek e eldu ondo, ta ja segidan bazka hartaa eldu, ah hua artetik jaten, aski dinat, bon geo nik e baliatuko diat geo inxtanteko, noait kusten badu inkas e bear du ba jin ez dain gileat, ale, xakurrai bi ausi inaa, eta ale, ardiak an bulta at, ba goizetan bulta aundia re ba, bulta aundia.

E.: eta bakarrik, xure bedeatziehun ardiekin edo mila ardiekin?

L.: ba, mila ardi, ba, mila ardi, axui denboran,geo beste artz... Oai bi artzaiñen ardiak juntatzen zitunan, mila-zortzieun buru, heldu un, ordian, hek batek, bi zakur behar zitinan hunak e, bi zakur hunak, ah ba, ordian baun ori, eremu haundia hartzen dun, animalia, animalia. Ez dinat ni yeus ein bakartasuna, jeus e, arrunt gustian egon nun ni. Maite, bon, deia gatzian ola usatia artzain, eta hola ardiaekilan. Nik ardia balin banin ondoan, ez ninan nehon beldurrik ez, bah beldurrik, gustian egoiten, adina re hala bainien, bana ez, ez, mendian aise egoiten, ta kaala izanez geoztik, hua laun, aski un, ta geo, gustian izalaik, ba, ba, bistan dena, leitzen ta ola, denboa pasteko, memento atzu, ba, ba, ba. Atsetan e, eta in dinat siesta puska at huna, ez zunan beala lokartzeoik, ta radioa, oai (...) radioa, han ze musika ederrak ez zien gauaz, zombait aldiz gauaz ez nindunan etzaten, egunaz bainin zernai lo inik, ordian, are, geo, olaxe pasten nitinan, aise pastia mendiko denbora, bu, bu, bu.

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen kariatara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala